ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2021eko ekainaren 2a, asteazkena • 60 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## LURRALDE OREKAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 311/2021 Erabakia, maiatzaren 25ekoa. Onespena ematea uztailaren 28ko 357/2020 Erabakiaren bidez onetsitako 2021erako auzo harremanak sustatzeko Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzak emateko deialdia ebazteari**

Ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauak auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako laguntza programa arautzen du II. tituluan.

Haren 8. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 28ko 357/2020 Erabakiaren bidez onetsi zen Arabako toki erakundeei programa horren kontura laguntzak emateko 2021eko deialdia, zeina ALHAOn argitaratu baitzen, 85. zenbakian, 2020ko uztailaren 29an.

Erabaki horrek xedatze zatiko bigarren ataleko 2. puntuan ezarritakoaren arabera, "Hasierako finantza hornidura kuantifikatu da Arabako Foru Aldundiaren 2021erako aurrekontuan berariaz edo era osagarrian auzolanak finantzatzeko jasotzen diren partiden hasierako esleipenen batuketa eginda. Zenbateko horiek handitu ahal izango dira beren hasierako horniduraren ehuneko 50era arteko kopuruaz.

Edonola ere, dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da partidan kreditu erabilgarria egotea".

Arabako Lurralde Historikoaren 2021erako Aurrekontua Gauzatzeko urtarrilaren 26ko 1/2021 Foru Arauari jarraituz, foru aurrekontua onetsi zen, eta honako partida hauek esleitu ziren, auzo harremanak sustatzeko laguntza programa finantzatzeko:

| | | |
|---|---|---|
| 10.2.03.16.01.768.00.03 | Auzo harremanak sustatzeko ekimenak | 514.360,00 euro |
| 10.2.03.16.01.768.00.04 | Auzo harremanen osagarria | 175.800,00 euro |

Horren ondorioz, aurretik aipatutako laguntza programa finantzatzeko partiden zenbatekoa, hasiera batean, 690.160,00 eurotan kuantifikatu zen.

Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuak, instrukziorako eskumena daukan organoa izanik, eta 21/2013 Foru Arauaren 10. artikuluan xedatutakoari jarraituz, prozedura bideratu du aipatutako foru arauan xedatutakoa betez.

Ondorioz, proposamena helarazi zaio kide anitzeko organoari, 21/2013 Foru Arauan ezartzen den bezala. Proposamen horrek honako hauek jasotzen ditu: eskatutako lanen zerrenda, ondoren atzera bota diren eskaerak, diruz lagundu daitezkeen lanak, dirulaguntza izango duten lanak eta baztertu diren eskaerak, horietako bakoitzari buruzko identifikazio eta kuantifikazio informazio zehatzarekin.

Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuaren instrukzio txostena eta kide anitzeko organoaren akta ikusirik, Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Auzo harremanak sustatzeko 2021eko ekimen programaren deialdiaren zenbatekoa 131.900,00 euroz handitzea, Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 28ko 357/2020 Erabakiaren xedatze zatiko bigarren apartatuko 2. puntuan xedatutakoari jarraituz.

Bigarrena. Onestea I. eranskinean zerrendatzen diren Arabako toki erakundeei dirulaguntza ematea, auzo harremanak sustatzeko ekimenen 2021eko programaren kontura. Dirulaguntza horiek adierazitako zertarakoetarako eta zenbatekoetan emango dira eta, guztira, 690.160,00 euro egiten dute.

Toki erakunde onuradunak dirulaguntza onartu duela joko da baldin eta, 15 egun baliodunneko epean, erabaki honen jakinarazpena jasotzen duen egunetik aurrera, ez badu aurkezten dirulaguntzan atzera egiteko idazkirik Arabako Foru Aldundiaren Lurralde Orekaren Sailean.

Hirugarrena. Erakunde onuradunak udal lizentzia eskuratu beharko du obrari ekin aurretik, lizentzia hori derrigorrezkoa bada.

Laugarrena. Toki erakundeak Arabako Foru Aldundiari honako hauek igorri beharko dizkio; osterantzean, ez da dirulaguntzarik emango: obra lizentzia eta organo eskudunen baimenak edo aldeko txostenak, baldin eta egin beharreko jardunak sektoreko legeriaren baten eraginpean badaude.

Bosgarrena. Dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2021eko aurrekontuaren kontura esleituko dira (21.1.21 taldea, 10-44 eta 10-45 lerroak).

Seigarrena. Emandako dirulaguntza ez da inola ere handituko.

Zazpigarrena. Obrak egiteko epea 2021eko azaroaren 30ean amaituko da. Epe bera izango da justifikazio dokumentuak aurkezteko.

Zortzigarrena. Erakundeak bere gain hartu beharko du obraren finantzaketa osoa.

Bederatzigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordainduko du dirulaguntza, Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuak adostasuna eman eta gero. Aldez aurretik, erakunde onuradunak auzolanen liburuko orriak bidali behar ditu, jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak, diruz lagundutako obra gauzatzeko egin diren auzolanen datuekin (eguna, parte hartzaileak eta lan egindako orduak adierazi behar dira, gutxienez), eta erakundeak onetsitako fakturak ere bai.

Materialari eta obra gauzatzeko beharrezko makinen alokairuari dagozkion fakturak jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak izan beharko dira, baina kontzeptu horiek dirulaguntza eskaeran sartu badira bakarrik.

Erakundeak, jatorrizko fakturekin edo fotokopia konpultsatuekin batera, enpresari ordaindutako materialen frogagiriak aurkeztu ahal izango ditu. Une horretan aurkezten ez baditu, bi hilabete izango ditu, gehienez ere, ziurtagiriak aurkezteko, dirulaguntza jasotzen duenetik aurrera.

Ziurtagiri horiek ez badira aurreko paragrafoan adierazitako epean igortzen, hasiera emango zaio dagokion dirulaguntza eta berandutze interesak itzultzeko prozedurari.

Hamargarrena. Ez ematea dirulaguntzarik auzo harremanak sustatzeko 2021eko programaren kontura II. eranskinean zehazten diren erakundeei, ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauaren hainbat artikulutan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz.

Hamaikagarrena. Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea behar adina egintza burutu eta behar adina xedapen eman ditzan, espediente hauek izapidetzeko.

Hamabigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Hamahirugarrena. Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 25a

*Diputatu nagusia*
*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

*Lurralde Orekaren foru diputatua*
*IRMA BASTERRA UGARRIZA*

*Lurralde Orekaren zuzendaria*
*JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

## I. ERANSKINA. AUZOLANAK SUSTATZEKO EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

| URTEA | ESP. | ERAK. MOTA | ERAKUNDEA | OBRA | AURKEZTUTAKO AURREKONTUA | AURREKONTUA LAGUNGARRIA | DIRULAGUNTZA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2021 | 5000 | U | LAGUARDIA | "La Fuente"ko aisiarako zona egokitzea | 11.283,25 | 8.626,80 | 8.626,80 |
| 2021 | 5001 | A.B | IBARGUREN | Baranda metalikoa euste horman | 7.808,29 | 7.808,29 | 7.808,29 |
| 2021 | 5003 | A.B | ATAURI | Iturria konpontzea | 3.278,25 | 3.278,25 | 3.278,25 |
| 2021 | 5004 | A.B | FAIDU | Toldoak jartzea | 5.216,81 | 5.216,81 | 5.216,81 |
| 2021 | 5005 | A.B | AUDIKANA | Edukiontzien estalkia jartzea | 15.246,00 | 15.246,00 | 15.246,00 |
| 2021 | 5007 | A.B | OPELLORA | Mendikoko auzotik bilegirako zona konpontzea eta hormigoia botatzea | 7.757,31 | 7.757,31 | 7.757,31 |
| 2021 | 5009 | A.B | GOMETXA | Bolatokia, harraska, armairuak egokitzea eta hormak pintatzea | 2.216,24 | 113,49 | 113,49 |
| 2021 | 5010 | A.B | PIPAÓN | Errautsen lorategiaren zati bat egokitzea eta Pipaongo hilerriko sakristiaren saneamendua | 9.903,85 | 8.937,67 | 8.937,67 |
| 2021 | 5013 | A.B | GAZEO | Haurrentzako parkea berritzea | 13.718,70 | 13.718,70 | 1.519,60 |
| 2021 | 5015 | A.B | ARRIETA | Edukiontzien estalkia jartzea | 3.496,90 | 3.133,90 | 3.133,90 |
| 2021 | 5016 | U | ZALDUONDO | Harrizko horma eraikitzea Elizaostea auzoan | 18.952,30 | 18.952,30 | 18.952,30 |
| 2021 | 5017 | A.B | OKINA | Gizarte etxearen irisgarritasuna | 22.365,64 | 21.248,08 | 21.248,08 |
| 2021 | 5018 | A.B | NAVARRETE | Haurrentzako parkea berritzea | 29.887,00 | 23.510,30 | 23.510,30 |
| 2021 | 5019 | A.B | SALCEDO | Salcedotik Rivabellosarako errepidea konpontzea | 9.892,96 | 9.892,96 | 9.892,96 |
| 2021 | 5020 | A.B | OTEO | Kristobal Done elizako bidea konpontzea | 17.448,20 | 15.972,00 | 15.972,00 |
| 2021 | 5024 | A.B | AGIÑAGA | Hondakinen edukiontzien estalkia jartzea | 18.755,00 | 17.629,70 | 17.629,70 |
| 2021 | 5025 | U | BILAR | Bilarko berdeguneak eta espazio publikoak egokitzea | 27.987,30 | 27.987,30 | 27.987,30 |
| 2021 | 5027 | A.B | GILLERNA | Uraska eta garbitegia iragazgaiztea | 5.999,29 | 5.273,29 | 5.273,29 |
| 2021 | 5030 | A.B | SANTURDE | Jolasen zonako zolako urak biltzea | 6.791,98 | 6.060,32 | 6.060,32 |
| 2021 | 5032 | A.B | GATZAGA BURADON | Erliebeak, fauna, flora eta mendiko ibilbideak laba plakan | 16.481,02 | 2.662,00 | 2.662,00 |
| 2021 | 5033 | A.B | MATAUKO | Lorategien zona egokitzea | 4.332,39 | 4.332,39 | 4.332,39 |
| 2021 | 5035 | A.B | MENAGARAI-BEOTEGI | Beotegiko Aretxabala bidearen zati bat konpontzea hormigoia botaz (mímena) | 29.100,50 | 13.569,92 | 13.569,92 |
| 2021 | 5036 | A.B | MENDOZA | Berdegunea egokitzea | 6.194,37 | 6.194,37 | 6.194,37 |
| 2021 | 5037 | U | AGURAIN | Alanguako auzoan autobus geltokirako markesina jartzea | 18.591,65 | 18.591,65 | 18.591,65 |
| 2021 | 5038 | A.B | HEREDIA | Bideak konpontzea | 2.686,52 | 2.012,47 | 2.012,47 |
| 2021 | 5039 | A.B | ANTOÑANA | Antoñana-Oteoko bidea konpontzea (2. fasea) | 28.757,05 | 27.274,58 | 27.274,58 |
| 2021 | 5040 | A.B | GORDOA | Edukiontzien estalkia | 4.973,10 | 4.043,82 | 4.043,82 |
| 2021 | 5043 | A.B | ANDOIN | Udalaren biltegia pintatzea | 1.722,44 | 896,43 | 896,43 |
| 2021 | 5044 | A.B | APILAIZ | Apinaizko pilotalekuko horma irudia | 4.265,16 | 1.682,22 | 1.682,22 |
| 2021 | 5046 | A.B | AZAZETA | Eguzki kaleko eskailerak eta barandak birgaitzea | 8.752,50 | 8.155,97 | 8.155,97 |
| 2021 | 5047 | A.B | LUNA | Guillarteko edateko uraren biltegirako bidea konpontzea | 27.150,85 | 22.717,50 | 22.717,50 |
| 2021 | 5048 | A.B | ABERÁSTURI | Bolatokiko inguruneko zorua konpontzea | 6.282,92 | 3.888,56 | 3.888,56 |
| 2021 | 5049 | A.B | VILLANAÑE | Angostoko Andra Mariaren santutegirako eta Varona dorrerako edukiontzien estalkia | 14.504,87 | 14.504,87 | 14.504,87 |
| 2021 | 5050 | A.B | GAZETA | Karrerapea eta barbakoa | 6.750,00 | 2.250,00 | 2.250,00 |
| 2021 | 5051 | A.B | FONTECHA | Fontechako Errege kaleko 21. zenbakiko gizarte etxeko sarreran hormigoia botatzea | 9.542,06 | 6.649,68 | 6.649,68 |
| 2021 | 5052 | A.B | DONE BIKENDI HARANA | Barandak pintatzea | 1.096,34 | 1.096,34 | 1.096,34 |
| 2021 | 5054 | A.B | MANURGA | Iturruzahar garbitegiko basoa konpontzea | 689,70 | 447,70 | 447,70 |
| 2021 | 5056 | A.B | HERMUA | Edukiontzien estalkia jartzea | 23.837,00 | 23.837,00 | 23.837,00 |
| 2021 | 5058 | A.B | ATIAGA | Hiri altzariak hornitzea | 5.489,22 | 5.489,22 | 5.489,22 |
| 2021 | 5061 | A.B | AMETZAGA ASPARRENA | Elementu komunen mantentze lana | 1.955,36 | 1.955,36 | 1.955,36 |
| 2021 | 5062 | A.B | SOXO | Campijo eta Sobrevilla auzoetako bideetan hormigoia botatzea | 11.809,60 | 9.476,72 | 9.476,72 |
| 2021 | 5063 | U | NAVARIDAS | Hiri eta kirol ekipamendua jartzea | 22.878,57 | 14.882,49 | 14.882,49 |
| 2021 | 5064 | A.B | GAMARRA NAGUSIA | Gizarte etxeko kanpoko berdegunea konpontzea | 1.167,95 | 1.045,17 | 1.045,17 |
| 2021 | 5065 | U | ESKUERNAGA | Hiri altzariak jartzea | 7.153,04 | 7.153,04 | 7.153,04 |
| 2021 | 5066 | U | ERRIBERAGOITIA | Aparkalekurako lurzatia egokitzea | 19.965,93 | 18.426,81 | 18.426,81 |
| 2021 | 5067 | A.B | QUINTANA | Aparkalekuko zona eraikitzea | 27.878,30 | 27.807,14 | 27.807,14 |
| 2021 | 5068 | A.B | ABORNIKANO | Montegrandeko sarbideko disuasio aparkalekua (Urkabustaizko hariztiaren BBZ) | 11.920,00 | 10.648,00 | 10.648,00 |
| 2021 | 5069 | A.B | BIKUÑA | Hiri altzariak eta edukiontzien estalkia jartzea | 8.792,06 | 8.792,06 | 8.792,06 |
| 2021 | 5071 | U | OKONDO | Udal espazioko berdegunea egokitzea | 29.999,99 | 23.747,07 | 23.747,07 |
| 2021 | 5072 | A.B | MARKINEZ | Hilerriko hormak konpontzea | 8.607,94 | 8.603,58 | 8.603,58 |
| 2021 | 5074 | A.B | SANTIKURUTZE KANPEZU | Fresnedoko aparkalekua egokitzeko II. fasea, zuhaitzak landatzea | 8.563,17 | 6.022,17 | 6.022,17 |
| 2021 | 5075 | A.B | OZAETA | Edukiontzien estalkia jartzea | 29.994,70 | 29.994,70 | 29.994,70 |
| 2021 | 5076 | A.B | GOPEGI | Garbitegiko estalkia teilaberritzea | 8.046,50 | 4.325,75 | 4.325,75 |
| 2021 | 5077 | A.B | MORILLAS | Kalea egokitzea | 1.452,00 | 1.131,35 | 1.131,35 |
| 2021 | 5080 | U | LANTZIEGO | Biasteriko eskoletan hiri altzariak jartzea eta zola egokitzea | 13.789,72 | 8.980,39 | 8.980,39 |
| 2021 | 5083 | A.B | MAEZTU | Bankuak jartzea | 2.172,74 | 2.172,74 | 2.172,74 |
| 2021 | 5084 | A.B | GORREBUSTO | Hesiak jartzea Gorrebustoko hainbat espaziotan segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko | 10.527,00 | 10.527,00 | 10.527,00 |
| 2021 | 5085 | A.B | ARESPALDITZA | Haurrentzako parkeko saneamendua eta hura pintatzea | 4.150,00 | 4.150,00 | 4.150,00 |
| 2021 | 5086 | U | LEZA | Hiri ekipamendua jartzea Lezan | 7.925,50 | 7.925,50 | 7.925,50 |
| 2021 | 5087 | U | MOREDA ARABA | Moreda Arabako lehengo udaletxeko bulegoak berriz egokitzea | 6.713,08 | 6.713,08 | 6.713,08 |
| 2021 | 5088 | A.B | PÁGANOS | Hiri altzariak jartzea eta konpontzea | 3.858,92 | 3.858,92 | 3.858,92 |
| 2021 | 5089 | A.B | IZARRA | Atzeko lorategia egokitzea – gizarte inplikazioko proiektua | 11.266,23 | 10.926,42 | 10.926,42 |
| 2021 | 5091 | A.B | KARKAMU | Hilerrirako atea hornitzea | 1.936,00 | 1.936,00 | 1.936,00 |
| 2021 | 5092 | A.B | NOGRARO | Edukiontzien estalkia | 10.360,62 | 9.658,82 | 9.658,82 |
| 2021 | 5094 | A.B | FRESNEDA | Hormigoizko zola udalerriko iturriaren zonan | 2.516,80 | 2.302,63 | 2.302,63 |
| 2021 | 5097 | A.B | TOBILLAS | Haurrentzako parkea | 25.576,21 | 20.239,86 | 20.239,86 |
| 2021 | 5098 | A.B | LLANTENO | Arotzeria aldatzea leihoetan eta balkoiko atean, Andra Maria Zuriaren baselizan | 5.305,85 | 5.305,85 | 5.305,85 |
| 2021 | 5099 | A.B | PINEDO | Iragarki taulak aldatzea | 1.676,93 | 1.676,93 | 1.676,93 |
| 2021 | 5100 | A.B | BACHICABO | Bankuak hornitzea eta jartzea | 2.599,08 | 2.599,08 | 2.599,08 |
| 2021 | 5101 | A.B | ESPEJO | Plazarako ping pong-eko mahaia | 3.938,55 | 3.938,55 | 3.938,55 |
| 2021 | 5102 | A.B | VILLANUEVA DE VALDEGOVÍA | Euste horma edukiontzien zonan | 10.260,80 | 6.854,65 | 6.854,65 |
| 2021 | 5103 | A.B | CORRO | Banku publikoak jartzea | 2.599,08 | 2.599,08 | 2.599,08 |
| 2021 | 5104 | A.B | ZUHATZU DONEMILIAGA | Haurrentzako parkea hesitzea | 9.383,13 | 9.383,13 | 9.383,13 |
| 2021 | 5105 | U | IEKORA | Yecorako iturriaren mantentze lana eta balioa nabarmentzea | 25.816,64 | 15.938,90 | 15.938,90 |
| | | | | Guztira | | | 690.160,00 |

ESP: Espedientea

AB: Administrazio Batzarra

U: Udala



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

## II ERANSKINA. AUZOLANAK. 2021an UKATUTAKO DIRULAGUNTZAK, EKAINAREN 27ko 21/2013 FORU ARAUA APLIKATUZ

| URTEA | ESP. | ERAK. MOTA | ERAKUNDEA | OBRA | ARRAZOIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 2021 | 5002 | A.B | BERNEDO | LOS LINARES BIDEA EGOKITZEA | Aurrekontu-mugapenengatik |
| 2021 | 5008 | A.B | URRUNAGA | MUGIKORTASUNA MURRIZTUTA DUTEN PERTSONENTZAKO BOLATOKIRAKO (KOMUN PUBLIKOEKIN) SARBIDEA HOBETZEA ETA EGOKITZEA | 21/2013 Foru Arauaren 7.1 artikulua , 21/2013 Foru Arauaren 7. artikulua , 21/2013 Foru Arauaren 4. artikulua |
| 2021 | 5011 | A.B | TERTANGA | HAURRENTZAKO PARKEAN JOLASAK JARTZEA | 21/2013 Foru Arauaren 8.6 artikulua |
| 2021 | 5012 | A.B | ETXEGOIEN | BI BASO PISTETARAKO SARBIDEA ARAUTZEKO BI HESI JARTZEA | 21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua |
| 2021 | 5014 | A.B | MURGA | LAU ALDEKO BANKUA DUTEN JARDINERAK ETA PAPERONTZIAK HORNITZEA ETA GARRAIATZEA | Aurrekontu-mugapenengatik |
| 2021 | 5021 | A.B | ETXABARRI IBIÑA | HAURRENTZAKO JOLASEN ZONA KONPONTZEA KONTZEJUKO ERAIKINAREN ALBOAN | Aurrekontu-mugapenengatik |
| 2021 | 5022 | U | KRIPAN | KOMUNITATEKO EKIPAMENDUA JARTZEA | Aurrekontu-mugapenengatik |
| 2021 | 5023 | A.B | IGAI | BIDETIK ADMINISTRAZIO BATZARREKO FINKARAKO SARBIDEAK | 21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua |
| 2021 | 5026 | A.B | SOBRÓN | HAURRENTZAKO PARKEA HESITZEA | 21/2013 Foru Arauaren 8.6 artikulua |
| 2021 | 5028 | A.B | NARBAIZA | NARBAIZAKO BOLATOKIA BABESTEA | Aurrekontu-mugapenengatik |
| 2021 | 5031 | A.B | ARRIOLA | EGUZKI FAROLA JARTZEA | 21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua |
| 2021 | 5034 | A.B | LABRAZA | ERROTAKO URRIAK ZAINTZEA | 21/2013 Foru Arauaren 7.1 artikulua |
| 2021 | 5041 | U | MAÑUETA | RONDO ERAKO HESIAK | Aurrekontu-mugapenengatik |
| 2021 | 5042 | A.B | ANDA | INGURUNEA EGOKITZEA | 21/2013 Foru Arauaren 7. artikulua |
| 2021 | 5045 | A.B | VILLAVERDE | SUTEEN SAREKO TXABOLA AUTOSOSTENGAGARRIA | 21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua |
| 2021 | 5053 | A.B | MANZANOS | ATERPETXEAREN ZONA EGOKITZEA | 21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua |
| 2021 | 5055 | A.B | RIBABELLOSA | ESTALKIA LUZATZEA | Aurrekontu-mugapenengatik |
| 2021 | 5059 | A.B | LUKIANO | INFORMAZIO KARTELAK EGITEA | 21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua |
| 2021 | 5060 | A.B | IZORIA | IZORIAKO URIZANDIKO ERROTAREN ERDIALDEA BIRGAITZEA | Aurrekontu-mugapenengatik |
| 2021 | 5073 | U | SAMANIEGO | HIRI ALTZARIAK JARTZEA | Aurrekontu-mugapenengatik |
| 2021 | 5078 | A.B | ANTEZANA DE LA RIBERA | KALEA ZOLATZEA | 9/2017 Foru Arauaren 8. artikuluaren d) idatz zatia, 21/2013 Foru Arauaren 7.1 artikulua , 21/2013 Foru Arauaren 7. artikulua |
| 2021 | 5079 | A.B | DURRUMA | BIDEAK KONPONTZEA | 21/2013 Foru Arauaren 9.4.6 artikulua |
| 2021 | 5082 | A.B | LEGUTIO | LEGUTIOKO (ARABA) GIZARTE ETXEAREN INGURUAN BIOSASUNGARRIAK JARTZEA | 21/2013 Foru Arauaren 8.6 artikulua |
| 2021 | 5093 | A.B | PAGOETA | BARATZE PUBLIKOAK ERAIKITZEA | 21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua |
| 2021 | 5095 | A.B | QUINTANILLA | HILERRIRAKO ATEA HORNITZEA | 21/2013 Foru Arauaren 12.1 artikulua |
| 2021 | 5096 | A.B | DURRUMA KANPEZU | GARBITEGIA KONPONTZEA | 21/2013 Foru Arauaren 4. artikulua |
| 2021 | 5106 | U | ARAMAIO | ARAMAIOKO UNTZILLA AUZOKO ELIZA INGURUA TXUKUNTZEKO LANAK | 21/2013 Foru Arauaren 8.6 artikulua |
| 2021 | 5107 | U | BARRUNDIA | UDALERRIKO HIRU ESPAZIOTAN EDUKIONTZIEN HIRU ESTALKI MUNTATZEA | 21/2013 Foru Arauaren 12.1 artikulua |

ESP: Espedientea

AB: Administrazio Batzarra

U: Udala



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2021.06.02 05:47:47 Z